

telebista ♦ irratia

Euskadi Literatur Sariak gaur zuzenean ETB1ean, 19:30etan

Arantxa Iturbe eta Joseba Martin esatariek aurkeztuko dute sari-banaketa

Erredakzioa / Donostia

Euskal Telebistak Euskadi literatur sarien banaketa ekitaldia zuzenean emango du gaur iluntzean, 19:30etatik aurrera. Juan Garzia, Juan Kruz Igerabide, Bernardo Atxaga, Andoni Egaña eta Anjel Lertxundi dira sarituak. Aurkezte lana, Arantxa Iturbek eta Joseba Martinek egingo dute.

JAURLARITZAKO Kultura Sailak antolatutako ekitaldia da Euskadi literatur sarien banaketa. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak, Mari Karmen Garmendia Kultura sailburuak eta Imanol Agote Kultura sailburordeak banatuko dituzte sariak. Lehendakariaren egoitza izango da ekitaldia. Aurkezpen lanaz, berriz, Joseba Martin Radio Euskadiko *Cultura.com* irratsaioko zuzendaria eta Arantxa Iturbe idazle eta Euskadi Irratiko *Goizean behin* saioko zuzendaria arduratuko dira.

Euskarazko Euskadi literatur saria Anjel Lertxundik jasoko du, *Argizariaren egunak* eleberriarengatik. Epai-



Joseba Martin Radio Euskadiko esataria eta Arantxa Iturbe idazlea eta Euskadi Irratiko esataria.

mahaikideen hitzetan, eleberria bikaina eta biribila da, eta ez da batere ohikoa.

Gaztelaniazko Euskadi literatur saria, berriz, Bernardo Atxagarentzat izango da, *Lista de locos y otros alfabetos* lanarengatik.

Juan Kruz Igerabide idazleak, *Jonas eta hozkailu belturtia* liburuaren egileak, jasoko du haur eta gazte literaturako Euskadi saria.

Epaimahaiaren esanetan, egileak beldurra modu berri eta atseginean aurkeztu du.

1998ko literatur itzulpeneko Euskadi saria *Ipuin Hautatuak* lanarentzat izango da: Juan Garzia Garmendiak itzuli du Jose Luis Borges-aren ipuin antologia.

Andoni Egaña idazle eta bertsolari zarautzarrari Zabalpen saria eman diote, *Pausoa noiz luzatu* liburuarengatik.

rengatik.

Ekitaldia amaitzeko, EAEko lehendakariak hitz batzuk esango ditu eta Gerardo Markuleta idazleak Joseba Sarrionandiaren irakurgai bat irakurriko du.

1982an sortu ziren Euskadi Literatur Sariak, euskal literatura sendotzeko asmoz eta idazleen lana goratzeko. Euskal Herrian iaz argitaratutako lanek izan dute saria

laburrean

Jostailuen lau iragarki engainagarriak direla salatu du CACk

Kataluniako Ikus-entzunezkoen Batzordeak (ACA) telebistako lau iragarkiren gaineko hainbat salaketa aurkeztu ditu Suspaten Ministerioan. Izan ere, jostailuei buruzko lau iragarki «engainagarriak» dira CACk azpimarratu duenez. *Nintendo 64* iragarkia, adibidez, *El Club Megatrix* Antena 3ko saioaren barruan eskaintzen dutelako salatu dute, publizitatea eta programazioa bereizten ez dituztelako hain zuzen. Salatutako beste hiru iragarkiak Hasbro enpresaren *Action Man* jostailuaren gainekoak dira; izan ere, jostailuko irudien antza duten aktoreen filmazioak ere eskaintzen dituzte.

Magia 'Egin kontu' saioan

Gaur *Egin kontu* ETB1eko saioan magiaz ariko dira. Hiru mago gonbidatuko dituzte, eta bakoitzak bere lanbideaz duen ikupuntua azalduko du. Gainera, erakustaldi txikiak egingo dituzte gonbidatuek. Eguerdietan izaten da *Egin kontu*.

Hika taldeko aktoreak eta Miss Bizkaia 'Sorginen laratza'-n

Estibaliz Hernandez aurtengo Miss Bizkaia *Sorginen laratza* saioan izango da gaur. Baita Hika antzerki taldeko bizpahiru kide ere, Azpeitiko Antzerki Topaketan aurkeztu behar duten antzezlan berriaz hitz egiteko. Ostiralean, Euskararen Egunean estreinatuko dute *Euskaloff 2050* lana.

Santiago Yaniz mendizale eta argazkilaria 'Forum' saioan

Santiago Yaniz mendizale eta argazkilaria izango da gaur *Forum* ETB2ko saioko gonbidatua. Mendian izan behar diren segurtasun neurriez eta euskal mendizaletasunaren egungo egoeraz mintzatuko da.

txoritxoari mokoka ♦ Ines Intxausti

SU-ETENAREN etenak erdi-lo harrapatu ditu Madrilgo tertulianoak. Astelehen goizean irratia piztu nuen eta oraindik behazuna egin gabe zeukaten batzuek eta bertzeok. Badaude gauza batzuk esfera pribatutik kanpo esan ezin direnak. Are gutxiago esfera intimotik aparte, noski... Eta esfera publikoaren foroko materiak gero eta gutxiago dira. Hori teoria hutsa besterik ez da, azken bolada azkarreko irratia eta telebistak garatu duen azken abere komunikatiboa ikusi eta gero. Jose Maria Callejak, adibide gisa, arrunten artean arruntena balitz bezala, Bartzelonako eta Madrilgo futbol taldeek promozioa nola jokatzaren duten eta Vigoko Celtakok Liga nola irabazten duten ikusi nahi duela bota zuen. Gauza berbera entzun nuen igande gauean Zornotzako hainbat tabernatan mediatikoak ez diren

Ai zu, etena!

beste hainbat abereri. Taberna edo etxean esateko *boutade*-ak dira. Baina ez Luis del Olmoren pulpitutik jaurtitze modukoak. Azken finean, inongo hausnarketa egin gabe zabaltzen du aho betea Callejak edota alboko inozentek. Hori bai, audientzia dela medio, hitzek hemen eta orain bost duro balio dezakete, hor edo han inolako eraginik izaten ez duten aldi berean. Eraso berberak pertsona batzuk hil ditzake, eta beste batzuei, berriz, luma baino leunago pasatzen zaie gainetik. Horrexegatik egun hauetan adi egon beharko dugu telebistan, irratietan eta egunkarietan ikusi, irakurri eta entzuten dugunarekin, badaezpada.

Ez dugu ahaztu behar *betikoen* aur-

pegia ez direla inoiz aldatuko. Eta *beti*-ko horiek bazekiten su-etena noiz hasi eta noiz bukatuko zen, (laxtina ez aurrreratzea hori guztia orain baino lehenago...). Betidanik izan ditugu tertulianoak han- hemenka. Ez daude desageratzeko zorian, gainera. Gizarteko pantaila informatiboa (komunikabide guzti-guztiek osatzen dute pantaila hori) zarama poltsa erraldoia bilakatu denetik tertulianoak beharrezko materia amalgamagarria dira zabor sozialerako. Bestalde, humanoa eta ez-perfektua naizen heinean, banuen gogoa negu latz honen paisaian tertulianoaren bat edo bi ikusteko. Urtero elur artean *yeti*-a ikustea bezain ariketa existentziala da niretzat. Eta aurtun *yeti*-a lau-bost aldiz ikusi dut dagoeneko. (Eta agian berarekin oheratu naiz, konturatu gabe; ea zer dioten nire psikiatrak...)